

biomasa

Egurretik ikatzera... txondorrak

De madera a carbón ...las carboneras



Antzina, basoko lan gogorrenetako bat ikazkinak egiten zuen, egunez zein gauez lan egin behar baitzuen. Gainera, eguraldia ezin zen kontuan hartu, txondorra ezin baitzen itzali.

Uno de los trabajos más duros que existían antaño en el bosque era el de carbonero. Había que trabajar tanto de día como de noche, sin importar las condiciones climatológicas, ya que la carbonera no se podía apagar.

Haritz, pago edo artearen egurretik ikatz begetala ekoizteko ondoko urratsak jarraitu behar ditugu:

Para la elaboración del carbón vegetal a partir de la madera de roble, haya o encina hay que seguir los siguientes pasos:

- Ahalik eta azalera lauena prestatuko dugu.
 - Erdi-erdian taket bat sartuko dugu; eta ekoiztu nahi dugun ikatz kopuruaren arabera, taketaren luzera aldatu egingo da. Inguruan, egur lehorra jarriko dugu.
- Lehenik egur zati handienak jarriko ditugu; eta hutsuneak estaltzeko, tamaina txikiko zatiak jarriko ditugu.
 - Hori guztia orbelez estaliko dugu, eta gainera, lur geruza bat jarriko dugu.
 - Taketa kendu eta bertan geratzen den "tximinian" sugarrak eta egur lehorra sartuko ditugu sua pizteko. Sua indartzen denean, estali egingo dugu.
 - Egun batzuetan zehar (tamainaren arabera: bostetik hogeira bitartean), txondorra kontrolatuko dugu. Horretarako, zulo txikiak egingo ditugu edo zulo batzuk estaliko ditugu suaren intentsitatearen arabera.
- Azkenik, hozten utziko dugu ikatza bertatik ateratzeko.

- Se prepara una superficie lo más plana posible.
- Se clava una estaca en el centro, de longitud variable, en función de la cantidad de carbón que se quiera hacer. Se rodea con leña seca.
- Se coloca la leña, empezando por las piezas más grandes y tapando huecos con las de menor tamaño.
- Se cubre todo con una capa de hojarasca y otra de tierra.
- Se extrae la estaca y en la "chimenea" que queda se introducen brasas y leña seca para comenzar el fuego. Cuando éste adquiere la fuerza suficiente se tapa.
- Durante varios días (varía en función del tamaño, de unos cinco hasta veinte), se controla la carbonera haciendo pequeños agujeros o tapando otros en función de la intensidad del fuego.
- Se deja enfriar la carbonera y ya se puede extraer el carbón.

